



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Bilbao Ekintza, E.P.E.L.

**Iragarkia, Bilbao Ekintza EPELena, hutsik dagoen enpresa-sustapenerako teknikariaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin eta B teknikariaren kategoriari (A2) dagokion ordainsaria duena betetzeko, behin bakarrik eta lehiaketa sistemaren bidez deitutako ez ohiko egonkortze hautaketa-prozesuko lanpostugaik behin behineko onartzeari eta baztertzeari eta epaimahaia izendatzeari buruzkoa.**

Bilbao Ekintza EPELeko zuzendaritza nagusiak honako Ebazpen hau jaulki du:

*Lehenengoa:* Amaitu da Bilbao Ekintzako 2022ko Egonkortze Lan-Eskaintza Publikoaren deialdiari dagozkion, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritako lehiaketaren bidez jabetzan betetzeko ez ohiko egonkortze-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea, Bilbao Ekintzako plantillan hutsik dauden lanpostuak lan-kontratuko langile finko moduan kontratatzeko.

- Enpresa-sustapenerako teknikariaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin eta B teknikariaren kategoriari (A2) dagokion ordainsaria duena. ESP. BE 2022-EST-0001.

Aipatu den deialdirako hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzea xedatzen da. Zerrenda hori ebazpen honen eranskin gisa ematen da.

*Bigarrena:* Epaimahaia izendatzea. Deialdiaren Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, hautaketa-prozesua epaitzeko ardura duen epaimahaia honela osatuko da:

- Presidentea:
  - Alejandro Taramona Bereciartua jauna, Bilbao Ekintzako Zerbitzu Orokorren Arloko Arduraduna eta, ordezkoko gisa, José María Escolástico Sánchez jauna, Bilboko Udaleko Udal Etxebizitzaren Zuzendariorde Operatiboa eta Juridikoa.
- Kideak:
  - María Jesús del Blanco Patino andrea, Bilbao Ekintzako Enpresa eta Enplegu arloko Zuzendaria, eta Eva María Salcedo Pérez de Obanos andrea, Bilbao Ekintzako Hiri Garapen (Invest in Bilbao) Unitateko Arduraduna, eta ordezkoko gisa, Cristina Laucirica Azcona andrea, Bilbao Ekintzako Ekonomia eta Finantza Teknikaria eta María Natalia Saiz González andrea, Bilbao Ekintzako Ekonomia eta Finantza Teknikaria.
- Idazkari 1:
  - José Ignacio Risueño Serrano jauna, Bilbao Ekintzako Lege eta Giza Baliabideen Arduraduna, eta ordezkoko gisa, Rosa Ana Yurrebaso Sestafe andrea, Bilboko Udaleko Zerbitzu orokorretako Zuzendariordea.

*Hirugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko eta eranskin gisa ematen den zerrenda. Baztertutakoen kasuan, baztertze arrazoia zehaztuko da.

*Laugarrena:* Interesdunek erreklamazioak jarri ahalko dituzte behin-behineko zerrenden aurka, eta baztertzea eragin duten akatsak edo omisioak zuzendu ahalko dituzte hamar egun balioduneko epean, zerrenda horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Kalifikazioaren aurkako erreklamazioak telematikoki aurkeztu ahal izango dira ope@bilbaoekintza.eus helbide elektronikora idatziz edo aurrez aurre Bilbao Ekintzaren bulegoetan (Nafarroa kaleko 5., 2. solairua).



Hautagaiek ez badute epe barruan zuzentzen baztertua izateko arrazoia, edo zuzenketa onartzen ez bazaie, edo ez badute epe barruan alegatzen zerrendan ez direla agertu, behin betiko baztertuko dira hautaketa-prozesu honetatik.

Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi hautagaiek deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela.

*Bosgarrena:* Onartuen behin betiko zerrenda Bilbao Ekintzaren webgunean argitaratuko da hala dagokionean.

Bilbon, 2023ko apirileko 17an.—Zuzendari Nagusia, F. Javier Garcinuño Zabala

**I. ERANSKINA  
ESP. BE 2022-EST-0001****ENPRESA SUSTAPENENKO TEKNIKARIA  
BARNE-SUSTAPENENKO TXANDA/ TXANDA IREKIA****ONARTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA**

NAN	Izen-abizenak
*066*8**	BIKANDI IRAZABAL, CRISTINA
*89***88	BUENO MAEZTU, YOLANDA
***8*615	EIZMENDI SASIAIN, OIHANA
*895***6	MEIZOSO GOMEZ, NATALIA
*899***9	LARRAMENDI ALUTIZ, ANDER
*891***6	GARCIA GARCIA, ITZIAR

**BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA**

NAN	Izen-abizenak	Arrazoia
***3*607	CRUZ RODRIGUEZ, ITZIAR	02
***0*683	DELGADO AZCONA, BLANCA	01

**BAZTERTZEAREN GAKOAK**

Kodea	Arrazoia
01	Eskatzen den titulua ez edukitzea
02	Eskatutako hizkuntza-eskakizunik ez edukitzea

— NAN: Nortasun agiria. 4 digitu ezkututzen dira.